

Palestinarekin Elkartasuna plataformak deituta berriz ere kaleak hartuko dituzte.

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 06/11/2023

Euskal Herriko eskualde desberdinetan manifestazioak antolatu dituzte azaroaren 11-rako.

Palestinarekin Elkartasuna, hainbat eragileez osatutako plataforma, berriz ere mobilizatuko da. Urriaren 28an manifestazio nazionala antolatu zuten, baina

<https://eh.lahaine.org/palestinaren-aldeko-manifestazioak-egin-dituzteoraingo> honetan eskualdeka egingo dituzte manifestazioak azaroaren 11an. Larunbat honetan deituak dira hurrengo mobilizazioak: goizez Hendaian 12:00etan tren geltokitik eta Iruñean 12:30etan Gaztelu Plazatik. Arratsalde Bilbon 18:00etan Plaza Eliptikotik eta Gasteizen 18:00etan Bilbo Plazatik.

Hemen kolektiboak publikatutako irakurketa deialdien harira:

Joan den larunbatean, urriaren 28an, Euskal Herri osotik etorritako milaka eta milaka pertsona kalera atera ginen Bilbon, Estatu sionistaren genozidioa salatzeke eta palestinar herriaren erresistentziarako eskubidea defendatzeko. Palestinarekin Elkartasuna ekimenak antolatu zuen manifestazioa, Euskal Herriko hainbat eragilek osatutako egitasmoak, eta diskurtso argi eta printzipio sendo batzuen inguruan, kolektibo eta norbanako ugari batzea eta aktibatzea lortu zuen. Palestinarekin Elkartasuna ekimenetik uste dugu manifestazioaren parte-hartze handiak frogatu egiten duela Euskal Herrian babes zabala dutela palestinar erresistentziaren eta Estatu sionistaren desgitearen aldeko aldarrikapenak eta mendebaldeko gobernu eta instituzioen aurkako salaketak. Horretaz gain, Bilbon 10 000 lagunetik gora elkartu izanak historiaren alde zuzenean egotea adierazten du; beste edozeinek bezala, bere autodefentsarako eskubidea gauzatzen ari den palestinar herri zapalduaren alboan.

Hala ere, Euskal Herrian eta mundu osoan Palestinarekiko elkartasun aktiboa izaten ari den arrakasta gorabehera, Palestinako egoera egunetik egunera gogorragoa eta latzagoa da. Estatu sionistak ez ditu Gazaren aurkako bombardaketak eteten eta blokeo krudela sakontzen du; mendebaldeko gobernuak Israelgo estatu sionista egiten ari den genozidioa militarki, ekonomikoki eta politikoki babesten jarraitzen duten bitartean. Mendebaldeko gobernuak estatu genozida baten babesle eta konplize bihurtzen dira horrela.

Azken aste hauetan, gobernu europar eta estatubatuarrak estatu sionista hornitzeko armak, soldatuak eta gerraontziak bidaltzen zituzten bitartean, herri palestinarrekiko elkartasun adierazpenak debekatzen eta kriminalizatzen jardun dute.

Bestalde, inbestidura prozesu betean, sinalatu behar dugu Espainiako gobernuak Estatu sionistari ematen ari zaion babesa, ezkerreko alderdi guztien konplizitatearekin. PSOEren gobernuak itsas armada Mediterraneo ekialdera bidaltzen duen bitartean,

ezkerreko alderdiek -Palestina babesten dutela diotenek- inbestidura blokea osatu dute eta datozen egunetan berriro ahalbidetuko dute herri palestinarraren aurkako genocidio sionistaren kolaboratzaile eta konplize den gobernu hau. Horregatik, dei egiten dugu PSOEK gidaturiko Espainiako gobernuaren aurkako presio politiko eta soziala handitzera, estatu sionistarekin dituen harreman diplomatiko, ekonomiko eta armamenstistikoak eten ditzan.

Testuinguru honetan, argi dago mobilizazio ziklo honi segida eman behar diogula, herri palestinarraren aldeko elkartasuna hedatzeko eta mendebaldeko estatu, espresa eta instituzioei presio egiteko sionismoa babestu ez dezaten. Palestinarekin Elkartasuna ekimenetik, sobera arrazoi badagoela ikusita, dei hau egiten dugu:

1.Genozidio sionistaren konplize diren enpresa eta instituzioak seinalatu eta salatu ditzagun.

2.Estatu sionistarekin kolaboratzen duen Espainiako gobernuaren aurkako presioa handitu dezagun.

3. Palestinar erresistentziaren alde mobiliza gaitzen.

Palestinar herriari gure elkartasuna adierazten jarraitzeko eta sionisten sarraskia zein bere konplizeak salatzeke, manifestazioak antolatu ditugu azaroaren 11n.

Gora palestinar erresistentzia! Sionismoa genozida!

<https://eh.lahaine.org/palestinarekin-elkartasuna-plataformak-deituta-berriz>